

Hornidurak. Zer jakin behar dugu



JUSTIFIKAZIOA

Elektrizitate- eta gas-hornidura funtsezko zerbitzuak dira egungo gizartean, eta hornidura, kalitatea, jarraitutasuna eta segurtasuna bermatu behar dira. Beharrezkoa da alderdi garrantzitsuenak ezagutzea, egoera berezietara egokitutako aukera bat egin ahal izateko, bai eta kolektibo kalteberenak babestera bideratutako neurriak ere.

HELBURUAK

- Horniduretan egin ohi den etxeko gastuari buruz hausnartzea.
- Aparatu eraginkorrenak bereiztea, energia-etiketak eskaintzen duen informazioan oinarrituta.
- Kontratazioaren aurretik dauden tarifa motak eta merkatu-aukerak ezagutzea
- Fakturretan agertzen diren kontzeptuak ezagutzea.
- Horniduren fakturan hainbat zerga identifikatzea.
- Gizarte-bonu termikoa eta elektrikoa eskuratzeko beharrezkoak diren baldintzak ezagutzea, baita bonu hori baliatzeko eman beharreko urratsak ere.
- Irizpide pertsonal eta arrazoituetan oinarritutako ibilbide-orria egitea familiaren kontsumoa jaisteko.

EDUKIAK

- Kontsumo eraginkorra etxean.
- Energia-etiketatzea.
- Hornigaien kontratazioa.
- Horniduren fakturak aztertzea eta zehaztea.
- Hornikuntzekiko gorabeherak.
- Erreklamazio-bideak.
- Elektrizitate-bonu soziala.
- Termiko-bonu soziala.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (aurretiko jarduera)

Fakturak etxean bilatzea:

- Norekin daukat kontratatuta hornidurak?
- Zer gastu dakarkit urtero hornidurek?
- Aldaketarik nabaritu al dut fakturaren baldintzetan?

GARAPEN FASEA (Saioa)

- Etiketa energetikoa. Garrantzia eta eskaintzen dituen datuak.
- Merkatu libre eta arautuko kontratuak eta tarifak.
- Faktura. Kontzeptuak eta esanahia.
- Elektrizitate-bonu soziala. Betekizunak.
- Gizarte-bonu termikoa. Betekizunak.
- Hornikuntzekiko gorabeherak. Nola jokatu.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (ondorengo jarduera)

- Familia-testuinguruaren fakturretan aurreztea lortzeko ekintzak.

COINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- Matematikarako konpetentzia.
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.

ZEHARKAKOAK

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
- Elkarbizitzarako konpetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- Izaten ikasteko konpetentzia.

METODOLOGIA

- Lankidetzalana.
- Banakako lana.
- Thinking based learning.

ANTOLAKUNTZA

* IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Pantaila digitala/proiektagailua. Internetarako sarbidea.	Gela bat. Bertaratuak gehienez 5 laguneko taldetan banatzea.	Sesio 1 - 90min

* *Esperientzia Kontsumobideren zentroetatik kanpo garatzen bada, baliabideak erabilgarri dauden ala ez jakinarazi.*

EBALUAKETA

IRAKASLEAK

Ebaluaketa inkesta.

IKASLEAK

Ebaluaketa inkesta.